



209

ALEA

arabako aldizkaria

HEGAZTIEN BEHAKETA

ARRANO BELTZAREN HEGALDIARI SO



Adi egon!

TRAFIKO ETENAK

AMVISaren sarea hobetzeko lanek
trafiko etenak eragingo dituzte

La Florida eta Katedral Berria eremuan



Erabili ibilbide
alternatiboak!

+info: vitoria-gasteiz.org





ALEA 209

2019-10-04 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

JOSEBA MARKINEZ.

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Elai-Etxea proiektuarentzat kalitatearen zigilua.
- 8 **Protagonista.** Iker Beitia Astondoaz zaldizkoa.
- 12 **Iritzia.** Irati Maraño, 'Agur'.
- 13 **Iritzia.** Igor Salazar, 'Falcone & Borsellino'
- 14 **Sarean.** #EuskaraNafarroan.
- 15 **Iruditan.** 'Herri Txiki Infernu Handi', Trebiñun.
- 16 **Gizartea.** Ikasleen autobusarekin arazoak Ribabellosan.
- 17 **Euskara.** Euskararen plana aurkeztu du Diputazioak.
- 18 **Kultura.** Abere azoka tradizionala ospatuko dute Agurainen.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Euskara.** IKA euskaltegien urteurren bitxia.
- 24 **Kultura.** Kantari, izena emateko epea zabalik.
- 26 **Gure Bazterrak.** Indianoen ibilbidea.
- 28 **Denbora-pasak.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estiburu Ugarte

Juanma Gallego

Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.
Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailaren edo bestelako
orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Irati Maraño eta Igor Salazar.

Hegaztiek liluratuta, hogei bat metrora

Turismo ornitologikoaren kalitatea eta hegaztiekiko errespetua bermatzen duen SEO/Birdlife erakundearen 'Iberaves' zigilua lortu berri du Joseba Markinezek Pobesko Elai-Etxea proiektuarekin; erkidegoan arrano beltza ikusteko aukera ematen duen ezkutaleku bakarra du, baita espezie anitzeko txoriak behatzeko ere. Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkate**. Argazkiak: **Mikel Arrazola, Joseba Markinez, PHOT.OK**.

Gailuparen arra, Pobesko Elai-Etxeko
begiratokian MIKEL ARRAZOLA





Caicedo-Sopeñako mendietan dago Euskal Autonomia Erkidego osoan arrano beltzak (*Aquila chrysaetos*) ikusteko eta irudietan jasotzeko aukera ematen duen ezkutaleku bakarra. Hegaztien erreginaren hegaldia gozatu daitezke bertatik, eta txunditu, hogeit hamar metro dagoen enbor batean bere lurraldea zaintzera pausatzen denean. Egun hauetan, gainera, arrano beltz bikotea eta udaberrian jaio ziren bi txita dabilza Pobes inguruko zeruak zelatatzen. Gabonak arte egongo dira kumeak; orduan gurasoek habiatik botako dituzte, eta lurralde berrietara mugitu beharko dira. "Bide luzea egin dezakete, baita Tarifaraino ere".

Joseba Markinezen ibilgailua igartzen dutenean ez dira larritzen arranoak. Hiru urte luze daramatzate 4x4 ibilgailuaren hotsa entzuten, hain zuzen gasteiztarrak Elai-Etxea proiektua abiatu zuenetik. Pobes herrian, gurasoen etxe zaharra konpondu zuen orduan Markinezek, eta bi apartamenturekin ostatua egokitu zuen bertan; halaber, bisitarien artean, ornitologiaren pasioa zabaltzeko asmoz, inguruko hegaztiak ikusteko bi *hide* edo begiratoki zabaldu zituen.

Ezer baino lehen hegaztien zaintza eta babesa lehenetsi ditu Elai-Etxeko arduradunak bere jarduera martxan jartzeko. Hala

aitortu dio, gainera, duela aste batzuk SEO/Birdlife erakundeak, eta turismo ornitologikoaren kalitatezko proiektuak nabarmentzeko sustatzen duen *Iberaves* zigilua eman dio. Berme hori duen Euskal Herriko proiektu bakarra da Elai-Etxea une honetan.

Bi begiratoki zeharo desberdin

Pobesko estatutik berrehun bat metrora dago lehen begiratokia. "Gaur arte 30 hegazti espezie baino gehiago zenbatu ditugu bertan, baita azeriak, orkatzak eta basurdeak ere". Pizidoak hurbiltzen dira, okil berdeak (*Picus viridis*) maiz, eta baita hegazti paseriforme asko ere; harrapariak neguan: miru gorria (*Milvus milvus*) edo zapelatzak (*Buteo*).

Caicedo Sopeñako beste begiratokia, berriz, proiektuaren harribitxia bilakatu da azken urtean, ia egunero arrano beltzak bertatik igarotzea lortu baitu Markinezek. "Leku pribilegiatuan bizi gara Añanan, bioaniztasun ikaragarria dago hemen. Euskal



Herriko Extremadura gara, biztanleria gutxi dugu eta hegaztien populazio izugarria dago. Gainera, denetariko paisaiak ditugu: basoak, zerealak, Ebro ibaia, Arreo aintzira, kareharrizko tontorrak Valderejon eta Sobronen...".

Elikadura kontrolatua

Ingurune bereziari esker, eta txikitan hegaztien ohituraz ikasitakoa baliatuta aukeratu zuen Markinezek arrano beltza ikusteko tokia, hain zuzen hegaztiaren antzinako habi baten ondoan.

Animaliak erakartzeko, astean birritan untxiren bat edo oilasko zatiak uzten dizkie Markinezek behatokiaren ondoan dagoen enbor batean. "Egunero eman ahal zaie jana, baina ez da egin behar, bere ohitura ehizatzea delako; eta aukera baldin badu harrapakinak hilik jateko, ohitura aldatuko du, eta ez dugu hori nahi". Hortaz, neurrian ematen die janaria, eta aurten, adibidez, bi kume izan dituztenez, gutxiago eman die. "Aurten bi kume izan dute, berezia da, eta elikadurari esker izan da; beraz, gero eta kontu



Joseba Markinez astean bitan igotzen da mendian duen begiratokira, arranoei jaten emateko. PHOT.OK

handiagoz jokatu behar dut; kumeak maiztasunez etortzen badira, ez baitute ehizatzen ikasiko". Hasiere batean, hilabetean behin bakarrik hurbiltzen ziren jatera arrano beltzak, "baina poliki-poliki harrapakinak aukeratzen, eta pazientzia handiz, fidelizatzea lortu dut". Hortaz, gaur egun, ezkutalekura joaten diren bisitariek arrano bikotea ikusiko dute ia seguru, pazientzia eta denbora izanez gero, eta begiratokian behintzat bospasei orduz zain egoteko prest baldin badaude.

Hamabost bat bikote

Arabian, hegaztiak behatzeko ezkutalekuak kokatzeko eta harrapariak elikatu ahal izateko, administrazio ezberdinen baimenak behar dira, eta Diptuzazioak jardueraren gaineko jarraipen zorrotza egiten du. Are gehiago arrano beltzaren kasuan, espezie zaurgarria delako eta babestuta dagoelako. "Erkidegoan soilik 15



Mokolodia eta txorrua. J. MARKINEZ

Miru gorria (*Milvus milvus*). J. MARKINEZArgi oilarra (*Upupa epops*). MIKEL ARRAZOLA

edo 17 bikote daude; bikote bat ezik, Araban daude guztiak eta Añanan gehienak", azaldu du Markinezek.

Hiru hilero txosten bat aurkeztu behar du Markinezek Diputazioan, tarte horretan hegaztiei zer motako janaria eman dien azaltzeko eta ematen dien janariaren pisua eta trazabilitate osoa azalduz. Gainera, Arabako Diputazioaren araudiari jarraituz, harrapakinak beti hilik jartzen dizkie Markinezek arrano beltzei. "Beste herrialde batzuetan bizirik jartzen dizkiete, baina etikoki ere ez da zuzena; usoa lotuta jartzen duzu eta ikusten ari da arranoa datorrela eta ezin du ezer egin, krudelkeria handia da, argazki bat egitegatik denak ez du balio".

Arrano beltzaz gainera, beste harrapari ausart batzuk ere hurbiltzen dira mendiko begiratokira, baina kontu handiz jokatu behar dute, Elai-Etxeko arduradunak azaldu duenez. "Arranoa oso espezie lurraldekoa eta erasokorra da. Miruren bat baldin badago inguruan, edo arrano txikiren bat (*Hieraetus pennatus*) bertatik botako ditu; sai arrea (*Gyps fulvus*) ere uxatzen du, eta, gerturatzen bada, hil egingo du. Saiak pixka bat handiagoak dira, baina ez dute armarik eta ez dira arrano beltza bezain oldakorrak; saia hildako animalietatik elikatzen da, eta arranoak, aldiz, animaliak ehizatzen ditu".

Sorpresa ederrak ere jaso ditu azken urteotan Markinezek. Mikel Arrazola argazkilari profesionalaren ezinbesteko laguntza izan da bat. Beste bat, ezohiko hegaztiak behatzeko aukera izan da, sai beltza kasu (*Aegypius monachus*). "Hiru metroko hegal-zabalera duen hegaztia da, ikaragarria; hasiera batean pentsatu nuen parapente bat zela (kar, kar)". *Bavioca* zuen izena, Demandako mendilerroan (Errioxa) espeziea berreskuratzeko asmoa egiten ari dira, eta askatu zuten ale bat Añanara iritsi zen. ■■■



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ

"Joko paralinpikoetan izatea asko amestea da, baina saiatuko naiz"

IKER BEITIA ASTONDOA ZALDIZKOA

Zuzenak fundazioko zaldizko Iker Beitia Astondoak erronka asko ditu esku artean; tartean, datorren urtean, Tokion izango diren Joko Paralinpikoetan parte hartu ahal izatea. Zaila izango dela badaki ere, lortu daitekeela uste du. Bizitzan erakutsitako adorea ez zaio falta helburua lortzeko bidean.

Testua: **Mirian Biteri**. Argazkiak: **Iker Beitia eta Mirian Biteri**.

Txikitatik ibili da zaldi artean Iker Beitia Astondo (Gasteiz, 1984) zaldizkoa; 12 urte zituenetik parte hartu izan du askotariko ekitazio txapelketatan. 24 urte zituenean, baina, Santanderren txapelketa batean ari zela, istripu larria izan zuen. Horrek ez zituen, dena dela, bere ametsak zapuztu, eta ospitaletik irten bezain pronto zaldi gainera igotzen hasi zen berriro ere. Gaur egun hipika egokituan dabil; maila gorenean, gainera.

Holandan jokaturako Europako txapelketan izan zinen abuztuaren 22tik 24ra. Pozik etorri zinen, ezta?

Bai. Helburua lortuta eta gaindituta itzuli nintzen. Joan ginen pentsatzen 65 edo 66 puntu ateratzea asko izango zela. Nazioarteko txapelketa batera joaten zarenean, normalean, emaitzak asko jaisten dira, hiru puntu edo, epaileak zorrotzagoak izaten direlako. Bestelako proba batean 66 lortzen baduzu, kasu honetan 63 aterako duzu ziurrenik. Gainera, apirilean Frantzia izan ginen; bertan, 61 atera nuen eta nirekin batera joan zirenak oraindik nota okerragoa izan zuten; eta 2017ko Europako txapelketatik ere 62 puntuarekin itzuli nintzen. Gauzak horrela, Europako txapelketera

joan ginen jakin gabe nola irtengo zen; 63 edo 64 nota ona zela uste nuen. Lehen egunean, 64 lortu nuen, eta bigarrenetan, 66. Egia esan, nota oso ona da niretzako eta, hortaz, oso pozik nago.

Zure errekorra haustea lortu zenuen...

Nazioarteko txapelketa batean atera dudana notarik onena da, bai, Espainia mailan altuagoak atera baditut ere. Oso gustura nago.

Desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako zaldilasterketetan lehiatzen zara orain, baina beti ez da horrela izan. Bi modalitateetan aritu zara. Zer alde dago ohiko txapelketa eta desgaitasunen bat duen pertsonen zuzendutakoan artean?

Ezberdintasun bakarra da desgaitasuna duten pertsonen maila baxuagoa eskatzen zaiela. Esango nuke, agian, epaileak ez direla hain zorrotzak eta ez dutela horrenbeste eskatzen. Baina, hala ere, egin behar dena oso ondo egin behar da; zailtasunak dituzunez, ez zaituzte barkatzen. Bestela, eskatzen dena berdina da bata eta bestean. Desgaitasun bat ez duten pertsonen ez dute inongo arazorik, beraien gorputzean dena ongi dago; eta, gure kasuan, batek ez dauka besorik edo eskurik edo beste bat ezin da mugitu. Eta hori ezin da berdin baloratu.



Iker Beitia zaldizkoa, 'Beltza' izeneko zaldiarekin batera, Elosun.



Etxebarri Ibiñan entrenatzen du gasteiztarrak.

"GERO ETA GEHIAGO IBILIZ ETA ESFORTZU HANDIA EGINEZ, HOBETZEN JOAN NAIZ, LORTU ARTE"

"ZALDIAK OSATZEN LAGUNDU NAU; OREKA ARAZOAK DITUT ETA ZUZEN ETA GELDI EGOTEN ESKATZEN DIT"

"ZORITXARREZ, KIROL JARDUERA HONETARAKO EZ DAGO LAGUNTZA EKONOMIKORIK"

Hipika egokitutako txapelketak maila ezberdinetan daude banatuta. Zuk zeuk zer mailatan parte hartzen duzu?

Laugarrenean. Denera, bost maila daude, desgaitasunaren arabera. Lehenengo mailan, desgaitasun handiena duten pertsonak daude; eta bosgarrenean, gutxiena. Txapelketetan parte hartu aurretik, azterketa mediku bat egin behar duzu, eta horren arabera, maila batean edo bestean sartzen zaituzte. Emaizta hori izan daiteke behin betiko edo berrikusi daiteke. Nire kasuan, hasiera batean, bosgarren mailan jarri ninduten, eta 2010ean, Portugalera joan nintzenean txapelketa batera, laugarrenera jaitzi ninduten. 2017an berriro ere egin nuen azterketa eta maila horretan baieztatu ninduten betiko.

Zelan moldatzen zara gaur egun zaldi gainean?

Nahiko normal. Oreakarekin arazoak ditut eta Garbiñe arrebak laguntzen nau. Bera ere zaldizkoa da, txapelketetan parte hartzen du. Batera goaz.

Beti ez duzu desgaitasuna duten zaldizkoen lehiaketetan parte hartu. Izan ere, orain dela 11 urte zaldiarekin txapelketa batean parte hartzen ari zinel, istripu larria eduki zenuen eta arrastoa utzi zizun. Nola animatu zinen berriro ere zaldi gainera igotzera?

Ospitalean nengoenetik oso argi nuen berriro ere zaldi gainera igo nahi nuela. Hortaz, abuztuan ospitaletik atera nintzen eta urtarrilean gainean nengoen. Hasiera, egia esan, oso gogorra izan zen; egunero zaldi gainera igo eta negarrez jaisten nintzen. Gaizki sentitzen nintzen; baina ez beldurra nuelako, baizik eta ezin nituelako gauzak lehen bezala egin. Ez nintzen berdin sentitzen. Ezin nintzen bakarrik igo, ez nuen trostan ibiltzen. Eta nire buruari galdetzen nion ea bizitza osoa horrelakoa izango ote zen. Baina, poliki, gero eta gehiago ibiliz eta esfortzu handia eginez, hobetzen joan naiz eta lortu dut. Baina, saiatu egin behar zara.

Ez duzu zaldiarekiko konfiantza galdu?

Inoiz ez. Errespetua hartu diot baina beldurra ez. Ospitalean nengoenetik argi nuen ez niola beldurrik izango, eta horrela izan da. Are gehiago, nik uste dut zaldiak osatzen lagundu nauela. Jendeak pentsatu dezake zaldi gainean ez dela ariketa fisiko asko egiten, baina oker dabil. Ariketa fisikoa egiten duzu zuzen mantendu behar zarelako eta gorputz osoko atal guztiak posizio jakin batean egon behar direlako jarrita. Horrek asko lagundu nau, oreka arazoak ditudalako eta zaldiak zuzen eta geldu egotea



'Absolut' zaldiarekin parte hartzen du txapelketetan Iker Beitiak.

eskatzen dizunez, oso lagungarria izan da. Agian beste batzuentzat ez, baina niretzako behintzat oso garrantzitsua da.

Zaldi gainean ibiltzeaz gain, bestelako ariketa fisikorik praktikatzen al duzu?

Bai. Astean, bost egunetan nago zaldiarekin. Horrez gain, astean behin, igeriketa egitera noa, eta beste hirutan, gimnasia. Ariketa mota ezberdinak egiten ditut. Txakurrekin ere irteten naiz mendira. Ez naiz geldi egoteko jaio.

Horri guztiari lana gehitu behar zaio...

Bai, zoritxarrez kirol jarduera honetarako ez dago laguntza ekonomikorik. Pentsa, txapelketa batera joan behar naizenean opor egunak hartu behar ditut lanean; eta arrea nirekin doanez, bera ere egoera berdinean dago. Dagoeneko ia ez zaigu opor egunik geratzen. Lan egin behar dugu, eta astean zehar gelditu barik egoten naiz. Egutero, 05:30ean jaikitzen naiz, 07:00etan Gasteizen lanean egon ahal izateko; Elosun bizi naiz eta hortaz, mugitu behar naiz. 15:00etan, lanetik irten, etxera itzuli eta bertako gauzak egin ostean, Etxebarri Ibiñara noa, han dago eta txapelketetarako erabiltzen dudana zaldia. 22:00ak arte edo ez naiz berriro ere etxera itzultzen.

Egoera horrek, baina, ez dizu txapelketetan parte hartzeko gogorik kendu. Iaz Zuzenak klubean sartu zinen. Zer asmorekin?

Hasierako asmoa zen dirulaguntzak eskatzea. Horretarako desgaitasun fisikoa duten pertsonen kirol federazioarekin jarri nintzen kontaktuan; erantzun zidaten ezin zidatela lagundu hipika egokitua ez dagoelako federazio horretan sartuta; desgaitasun fisikoa ez duten pertsonen federazioaren barne dago. Zuzenak klubera jotzeko esan zidaten. Pozik hartu ninduten han, hipika egokitua egiten zuen bestelako kirolaririk ez zutelako; gehienak, errugbian eta saskibaloian aritzen dira. Lizentziak ordaintzen laguntzen didate, eta lan burokratiko guztia ere beraien esku utzi dut.

Zeintzuk dira etorkizunera begira dituzun erronkak?

Datorren urtean, nazioarteko bizpahiru txapelketetan parte hartzeko asmoa dut. Ekainean, gainera, Espainiako txapelketa izango da, eta bertan ere badut lehiatzeko asmoa. Urrezko dominaren bila joango naiz berriro ere; orain arte bi bider irabazi dut. Eta abuztu eta iraila artean, Joko Paralimpikoak jokatuko dira Tokion. Han izatea asko amestea da baina agian lortu daiteke; ez da erraza izango baina saiatu, behintzat, saiaturiko naiz. Eta datorren urteko jokoetan ez bada, hurrengo batean izango da. Fisikoki ondo zauden bitartean, lehiatzen jarraitzeko aukera ematen duen kirol jarduera da hipikarena, eta beraz, denbora dago oraindik. ■■■

Agur

**IRATI MARAÑON**

ITZULTZAILEA

Olarizuko tontorrean izan behar zuen, non bestela? Izan ere, Gasteizi agur esateko, nire bizitzaren fase hori ixteko, ez zait okurrizten toki hoberik. Egongo dira, bai, Armentiaren defendatzaile sutsuak edo Salburuko hezeguneen zaleak; nik ere maite ditut txoko horiek, baina sinetsiezadazue —eta paseatzaile profesionala naizen aldetik esaten dizuet— Olarizuk eskaintzen du Gasteizko ikuspeirik ederrena; eta hiritik apenas aldendu gabe, gainera. Alberto Zerain zenak ere biziki atsegin omen zuen Olarizu, eta Javi Dominguez ultratrail korrikalaria sarritan ikusi dut han entrenatzen. Bere txikitasunean handia da Olarizu; bai, horixe.

Hiri osoa ikusten da handik goitik: Salburuko eta Zabalganako etxe orratz distopikoak, Alde Zaharreko elizetako dorreak, Zabalgunen ordenatua, hegoaldeko auzoak eta iparraldekoak, industrialdeak... Eta, inguruan, Lautada: soroak eta herrixkak. Eskumatara, urrunean, Beriain, eta gertuago Aratz, Aizkorri eta Anboto. Parean, Gorbeia, eta ezkerretara, Badaiaiko mendiak, Trebiñu eta beste.

Dena delako arrazoiatatik hiriarekin erreta dagoenak Olarizura igo beharko luke, han berradiskidetuko da—eta Gasteizekin. Era berean, hirira etorri berria den edonork igo beharko luke Olarizura. Esate baterako, Erasmus programaren bitartez Gasteiza datozen unibertsitateko ikasleentzat propio antolatu beharko lukete txango bat hara. Nik gustura egingo nuke gidari-lana, baina, esan bezala, Gasteiztik alde egingo dut. Espero dut, dena den, Olarizura itzultzen naizen hurrengo aldirako kenduta egotea hango gurutze mastodontiko eta mehatxagarria. ■■■

**ZERAIN ZENAK ERE
BIZIKI ATSEGIN OMEN
ZUEN. BERE
TXIKITASUNEAN
HANDIA DA OLARIZU**

Falcone & Borsellino



IGOR SALAZAR

ZUZENBIDEAN DOKTOREGAIA

Bi heroi: Giovanni Falcone (1939-1992) eta Paolo Borsellino (1940-1992). Italiako bi magistratuek bizitza eman zuten askatasunaren alde eta mafiaren kontra. Haien ausardia aintzat hartzeko Palermoko hirian horma-irudi handi bat dago. Halako omenaldiak garrantzitsuak dira iraganarekiko lotura ez galtzeko, eta iragan hori balioetsiz gizartearen oraina eta etorkizuna finkatzeko.

Euskadira hurbiltzen bagara, Gasteizen, mural sare zabala daukagu. Azpimarratzekoa da hiri paisaia edertzen duen kultura-ondare garaikide eta humanizatu hori. Horrenbestez, gizarte-kohesioa eta arte-adierazpen kolektiboa sustatzen dira, baita boluntarioria zibikoa ere, hiriarentzat foku turistiko garrantzitsu bat sortuz, hiritik kanpo ezagutzeko eta aintzatesteko modukoa.

Duela gutxi, Borja Rodriguezek, Partaidetza eta Gardentasuneko zinegotziak, azaldu zituen Gasteizko arte monumentalak jasango dituen berrikuntzak eta erronkak datorren urteetan. Horma-irudien kalitatea handitu nahi da. Besteak beste, funtsezko berri bat honako hau izango da: gaia alde zuzenetik ezarrita egongo da. Nahiz eta, tupustean, baldintza zorrotzegia iruditu, hiriarentzat garrantzitsuak diren gai eta balioak islatzea da horren xedea. Horren haritik, ETaren biktimen oroimena helburu izango du 2021eko muralak.

Beraz, Euskadiko hiriburuan, Siziliako hiriburuan bezala, gure omenaldia izango dugu adierazpen garaikide eta artistiko gisa. Palermon bezala, guk ere baditugu Falcone eta Borsellino asko eta asko, Fernando Buesa eta Jorge Diez, adibidez. Bi heroi. ■■■

**PALERMON BEZALA,
GUK ERE BADITUGU
FALCONE ETA
BORSELLINO
ASKO ETA ASKO**

SAREAN

@ANAMENABAR

#EuskaraNafarroan

Eremu misto zein ez euskaldunean euskara meritutzat ez hartzea. Hala erabaki du Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, UGT eta SPA sindikatuen izenean jarritako helegiteari arrazoia emanda. Emaitzak hautsak harrotu ditu gizarte eragileen artean. Kontseiluak, esaterako, kritika egin dio sententziari, eta oraingo Euskararen Legeak halako ebazpenei atea irekitzen diela salatu du; halere, epaiak ez duela euskararen erabilera debekatzen gogoratu du: "Gobernuak borondatea izanez gero, ez du oztopo juridikorik euskararen presentzia bermatzeko" ■



ION ORZAIZ
@IonOrzaiz

Kolpe latza da. Euskararen dekretuak bazituen gabeziak, baina gaurko sententziak 2003 aurreko egoerara garamatza: atea zabaltzen dio euskara paisaia linguistikotik eta administrazioetik kanporatzeko aukerari.



JUAN KRUZ LAKASTA
@jklakasta

Egun beltza Nafarroako euskaldunontzat, euskaltzaleontzat, demokraziaezaleontzat. Besteak beste, orain euskara errotulazioan ez da derrigorrezkoa, baina ez dago debekaturik. Ez dezagun onartu ikustezen bihurtzerik.



GARBIÑE PETRIATI
@gpetriati

Euskarari Buruzko Legeak ematen dio bide erabaki honi, eta agerian uzten du, beste behin, Lege horren zentzugabekeria.
#EskubideZonifikatuak



IÑAKI PETXARROMAN
@petxarroman

Ez ahaztu: arazo nagusia da euskaldunen hizkuntz eskubideak eremuka bereizten dituen Nafarroako Euskararen Legea eta hark bideratutako #Apartheid linguistikoa.



JOKIN ETXEBARRIA
@Etxazk6

Nolako mina egiten dien batzuei oraindik Nafarroako hizkuntza Euskara (linguae navarrorum) izatea eta ez Lingua Hispanica.

M Mencia
Optika

150 urte
zure ondoan

www.menciaoptika.eus

 IRUDITAN



Erreka, larre eta sagardotegi artean

Batetik bestera, Euskal Herriko herri txikietan barrena dabil *Herri Txiki Infernu Handi* telebista, eta oraingoan Trebiñura gerturatu dira bertako txoko, istorio eta herritarrak ezagutzera. Hainbat txokoren artean, Doroño, Armentia, Argantzun, Argote, Askartza eta Baxauri bisitatu dituzte Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga aurkezleek. Besteak beste, Antton Bastero, Ruben Gonzalez, Roberto Gonzalez de Viñaspre, Paula Gonzalez eta Andoni Portillaren eskutik ezagutu dituzte txokoak. Egindako elkarrizketak urriaren 3an aurkeztu dituzte, eta laster eskainiko dute ETB1en.

Argazkia: Herri Txiki. ■■■



Bidali zure argazkiak testu labur batekin: erredakzioa@alea.eus



Egunero, autobusa hartzen dutenean, protesta egiten dute gurasoek. R. GURASOAK

Institutua, gero eta urrunago

Ribabellosako gazteak Langraiz Okako institutura eramaten duen autobus linea birmoldatu du Hezkuntza sailak; joan-etorria ordu erdi batean egitetik ordu batean egitera pasatu dira ikasleak.

E.UGARTE LZ. DE ARKAUTE RIBABELLOSA
Bi autobus lineatan joaten dira egunero gazteak Ribabellosatik eta inguruko herri txikietatik Langraiz Okako institutura. Herri txikietan gazteak jasotzen dituen autobusak ordu bete baino gehiago behar zuela ohartu zen Hezkuntza saila, ikasturte hasieran; eta zerbitzuak birmoldatzea erabaki zuen, legez debekatuta baitago ikasleak ordubete baino gehiago joan-etorrian ematea. Orain, herri txikiak zeharkatzen

dituen autobus lineak ordubete eskas behar du Langraiz Okara irteteko; baina Ribabellosatik zuzenean ordu erdi batean joaten zen linea hainbat herritan sartu behar da, eta ordubete behar du joan-etorria egiteko.

Ribabellosako gurasoak sutan jari dira. "Zortzi ikasle garraiatzen duen autobus baten arazoa konpondu beharrean, zonaldeko ikasle guztiei jarri digute arazoa, 59 laguni", esan du Laura Torresek gurasoen izenean.

Joan-etorrian denbora gehiago emateaz gainera, errepide arriskutsuagoak dira zeharkatu behar dituenak orain Ribabellosako autobusak. "Ordu erdi gehiago ematen dute autobusean, eta gainera, neguan, arazo gehiago izango ditugu bigarren mailako errepideetan, elurrarekin, izotzarekin... Arriskutsuagoa da orain bidaia gure umeentzat".

Taxiaren aukera

Konponbideak Hezkuntza sailak bilatu behar dituela uste dute gurasoek, baina "gauzak nola funtzionatzen duten" jakinik, haien partetik eta Añanako Kuadrillarekin elkarlanean, balizko konponbide bat aurkeztu diote Hezkuntza sailari. Hain zuzen, taxi bat kontratatzea Estavilloko eta Añastroko gazteak institutura eramateko. Modu horretan, Ribabellosakoak zuzenean joan ahal izango dira institutura; eta Melledes, Manzanos, Antezana de la Ribera, Estavillo eta Añastro zeharkatzen dituen autobus linea bitan banatuko da. "Joan-etorriak 40 minutuan egin daitezke eta aurrekontua oso gutxi igo beharko da".

Añanako Kuadrillak dagoeneko bidali dio proposamena Hezkuntza sailari, eta erantzunaren zain dago. Halaber, administrazio desberdinekin eta eskualdeko ikastetxeekin hitz egiten ari dira Ribabellosako gurasoak arazoa behingoz konpontzeko. "Pazientzia eskatu digu Hezkuntza sailak, ikertzen ari direla gaia eta aurrekontua egokitu behar dutela arazoa konpontzeko". Bitartean, Ribabellosako gurasoak eta ikasleak, goizero, autobusa hartzen dutenean, protesta moduan, kartelak eramaten dituzte eta autobusaren irteera oztopatzen dute minutu batzuk.

Euskara sustatzeko plana aurkeztu dute

"Hiztunak eta haien sareak" aktibatzea helburu, 76 ekintzez osatutako euskararen aldeko plan estrategikoa abiatu dute hainbat eragilek.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoa Araban (2019-2022) aurkeztu zuten jendaurrean irailaren 26an Europa jauregian. Planak 76 ekintza zehatz ditu, eta Arabako gizarteko eragileek hartu dute parte lanketan.

Planaren helburu nagusia "hiztunak eta haien sareak aktibatzea" eta "lurraldean euskaraz bizitzeko aukerak bermatzeko baldintzak sortzen jarraitzea" izango dela azpimarratu dute.

Plana lantzen aritu diren eragile ugari izan ziren aurkezpen ekitaldian, besteak beste, Foru Aldundiko, Gasteizko Udaleko eta Batzar Nagusietako talde politikoetako ordezkariak, baita Plana zehazteko orduan aholkularitza lanak egin dituen Elhuyar enpresakoak ere.



Plana jendaurrean aurkeztu dute. AFA

Arabako euskalgintzako hainbat erakundetako ordezkariak ere han izan ziren. Plana zehazteko prozesuan ere parte hartu dutenak hauek izan dira, besteak beste: Euskaltzaindia, Arabako euskaltegiak, Gazteriaren Foru Erakundea, Arabako Kirol Federazioen Elkarteak, Arabako aisia- eta kirol-elkarteak, Bai Euskarari elkarteak eta Topagunea. Etxe hau ere, Alea, bertan izan zen.

Euskararen Foru Zerbitzuko zuzendari Lexuri Ugartek plana eratzen aritu diren eragile guztiei eskerrak eman eta Plan berriak Araban "kalitate-salto bat" eka-rriko duela azpimarratu zuen. Izan ere, ekitaldian izandako ordezkariak zabalak agerian uzten duen bezala, "prozesua parte-hartzailea izan da hasiera-hasieratik", Ugarteren hitzetan.

Adierazle sistema

Bestalde, "Planaren xedek lortzeko oinarri eta estrategia berriak jorratu" ziren, antolatzaileen arabera. Izan ere, diseinu-prozesu osoan "Planaren erdigunean kokatu dira lurralde-ikuspegia, lizentzia, elkarlana, koordinazioa, komunikazioa eta parte hartzea, eta halaxe izango da Plana gauzatzean ere", azaldu dute.

Era berean, "adierazle-sistema baten bitartez", plana "eraginkorra eta neurgarria" izango da, eta "komunikazio estrategia berriak" izango ditu. Bide horretan, Euskararen Foru Zerbitzua gidari izango da, baina elkarlanean arituko da Arabako Euskara Zerbitzuekin, baita Arabako gainerako jendarte eragileekin ere.

ALEGRÍA-DULANTZI

FUSIONARTE

URRIA 2019

Igandea 13 - 19:30ean Auditorioan
MUGMUS LABORATEGIA
"¡Esku harriak-oteizaren (h)aria"
Dantza, Musika, eskultura eta bertsolaritza

Ostirala 11 - 19:30ean Alde Zaharrean
COMPAÑIA TURUKUTUPA
"Reziklantes"
Birziklatzearen bidezko musika sormena (Ibiltaria)

Igandea 20 - 18:00ean Auditorioan
LAENANANARANJA
"Kontukantari"
Familiarentzako musika txotxongiloekin

Larunbata 19 - 19:30ean Auditorioan
JAVIER SEGARRA
"¡Enradiado!"
Musika eta umorea irratian eginiko omenaldi berezian

Sarrerak: Kultur Etxean

Abere artean, egun pasa ederra

Asteartean, hilak 8, egingo dute Aguraingo abere azoka ospetsua; Euskal Herriko mendiko zaldi arrazako eta artzain gazten Arabako lehiaketak eta askotariko erakusketak izango dira, besteak beste.

MIRIAN BITERI

AGURAIN

Jaietan murgilduta dago berriro ere Agurain. Larunbatean, urriak 5, hasiko dira herriko festak, eta urtero moduan, hamaika jarduerak prestatu dituzte egunotarako; tartean, 624 urte betetzen dituen astearteko abere azoka.

Bertako Kultura teknikari Josu Perez de Villarrealek azaldu du 250 abere inguru izango direla 11:00etatik aurrera ikusgai. Ez da faltako Euskal Herriko mendiko zaldia arrazako XII lehiaketa: "Hitzordu garrantzitsuena da Aguraingoa, eta beraz, abere onenak bilduko dira, adierazi du. Horrez gain, arraza ezberdineko behi,



lazko azoka. MARTA MARTINEZ DE GEREÑU

ardi, ahuntz, asto, oilo eta txerrien erakusketak izango dira. Agurain-darren eta ingurukoen artean ikusmin handia sortzen duen beste lehiaketa bat ere antolatu

dute; hain justu, Arabako XXXIII. Artzain Gazta lehiaketa: "Euskal Herriko txapelketarako puntugarria da; lehen hamarrek lortuko dute txartela. Ingurune honetan oso gazta ona egiten da, eta ikusteko dago aurten zeinek irabazten duen".

Eskulturen zozketa

Bestalde, motozerrarekin egingako eskulturen lehiaketa ere egingo dute; berrikuntzekin dator gainera ekimena, aurten eskulturak zozkatuko direlako eta lortutako dirua gizarte larrialdietarako funtsera bideratuko da.

Azoka hitzordu esanguratsuena baldin bada ere, bestelako jarduerak ere izango dira egun osoan zehar. Goiz eta eguerdi partean, Aguraingo musika eskolako ikasleek erakusketak gunea alaituko dute trikitiekin.

Arratsaldean, pilota partiduak jokatu dira, 17:00etan; besteak beste, Olaizola II-Mariezkurrena II eta Bengoetxea VI-Albisu bikoteen arteko norgehiagoka jokatu da. Ordubete beranduago, magia saioa izango da txosnagunean; eta 19:00etan, San Juan plaza girotuko du Xaiborrek.

31
hogeita hama urte **ika**

Gasteiz euskalduntzen
gasteiz.ikaeuskaltegiak.eus

GASTEIZ
Errege-erregina
Katolikoak 15 C
945 288 922

ZALDIARAN
Zaldiaran pl. 15-16
945 244 905

ARATZ
Adriano VI.a 18
945 154 341

euskara
errazago
egiten
ika

IZARRAKO JAIAK

URRIAREN 4TIK 7RA
BETE BIRIKAK EUSKARAZ,
EGIN PUTZ... ETA ONDO
PASA!



ESANAK



MIKEL OTERO

EH BILDUKO LEGEBILTZARKIDEA

Iturria: Hala Bedi

"Larrialdi ekologikoak irtenbide konplexu eta askotarikoa du; ez dago erantzun sinplerik"



VERONICA WERCKMEISTER

ARTISTA

Iturria: Noticias de Alava

"Horma-irudi bat fatxada batean pintura-eskualdi batzuk baino askoz gehiago da"



EDURNE PARRO

AENKOMER-EKO GERENTEA

Iturria: Radio Vitoria

"Gasteiz erdiguneko komertzioarekin kezkatuta gaude; inbertsioa behar da"

ZENBAKITAN

Hildakoak

Beste preso bat hil da Zaballako espetxean, urtea hasi zenetik bosgarrena. Gizonaren hilotza irailaren 21ean aurkitu bazuten ere, berria ez zen irailaren 27ra arte ezagutu; espetxeetan diharduen funtzionario talde batek eman zuen horren berri sare sozial baten bidez. Barne ikerketa bat martxan ipini du espetxeak zer jazo zitzaien argitzeko. Salhaketa Araba elkarteak heriotza berri hori salatzen du, eta kritikatu du kartzelak "berria ezkutatze darabilen politika"; elkarretaraztea deitu du urriaren 8rako, 12:00etan, Espainiako gobernu ordezkariak Olagibel kalean duen egoitzaren aurrean.

5

77

Lanpostuak

Correosek lan eskaintza iragarri du; 77 lanpostu finko bete behar ditu Araban, eta izena emateko epea ireki du. Urriaren 10era bitartean izango da aukera horretarako, banaketa enpresa publikoak duen webgunean. Lanpostuak Correosek Jundizen duen zentrorako, banaketarako eta bulegoetarako izango dira; hain zuzen, banaketarako 13 izango dira, Jundizen banaketa antolatzeke 55 eta bulegoetako jendaurreko lana egiteko beste 9 izango dira.

21

Milioiak

Amatasun eta aitatasun atxikipenen % 97,5 itzuli ditu Arabako Foru Ogasunak, Auzitegi Gorenaren epaia eta gero; denera, 21,7 milioi bueltatu dizkie 2013tik prestazioa kobratu zuten 22.690 guraso arabarri. Gainerako itzulketak hilabete honetan hasiko dira; enplegatu publiko, kooperatibista eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateak dituzten profesionalen kasuak dira. Epaia eman baino lehen errekurritu zuten pertsonak ere jaso ahalko dituzte.

Autodeterminazio eskubidea aldarrikatu dute Gasteizen

Kataluniako erreferendumaren bigarren urtemugan, elkarretaratze jendetsua egin dute Gasteizen, autodeterminazio eskubidea aldarrikatu eta Kataluniari babesa adierazteko. Errepublikaren Defentsa Batzordeetako (CDR) kideen atxiloteta eta espetxeen ondotik dator mobilizazioa, eta buruzagi politiko katalanen kontrako epaia ezagutzeko atarian.



Andre Maria Zuriaren plazan egin zuten elkarretaratzea, asteartean. ALEA



Burgosko presidentea, gutunarekin. ALEA

Trebiñarren borondatea defendatzeko eskaera egin dute alkateek

Burgosko Diputazioaren presidentea Cesar Ricori gutuna eman zioten, larunbatean, Trebiñuko eta Argantzungo alkateek, Briviescan egin zen Probintziaren Egunean. Trebiñarren gehiengoaren borondatea "aitortu, onartu eta defendatu" dezan eskatzen diote, eta lagundu dezan "enklabea Arabako Lurralde Historikoaren administrazio antolakuntzan sartzin".

Atarian jazotako diskriminazio matxista bat salatu dute

Salburuko Hezeguneen Interpretazio Zentroan emandako egoeraren berri eman du Gasteizko mugimendu feministak. Kasu horren xehetasunak publiko ez egitea erabaki duen arren, Ataria gunean jazotako egoera "ikertu eta bere enpresenganako zein azpikontratenganako neurriak har ditzan" exijitu dio Gasteizko Udalari.

Judimendiko joko aretoa itxi egin dutela iragarri dute

Judimendik joko aretoari ez! dinamika iragarri du bi hilabete direla Judimendiko joko aretoak atek itxi zituela. Dena dela, "borrokan segitzeko" deia egin du, badakitelako auzo boterea eta herri mugimenduko aliantzak ez direla nahikoa arazoarekin behin betiko amaitzeko. Horregatik, instituzioei eta gizarte eragileei esku har dezaten eskatu die.

Confecciones Pinedo, S.L.

Euskal Jantziak

San Antonio, 11
Heraclio Fournier, 15
GASTEIZ



www.confecconespinedo.com

"Hurrengo erronka da etorri berriak gurera erakartzea"

ÍÑAKI BARONA ETA JOXEMI REGUERO IKA EUSKALTEGIETAKO ZUZENDARITZA TALDEKO KIDEAK

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Duela 30 urte sortu zen IKA, baina urteurrena datorren urtean ospatzea erabaki dute erakundeko arduradunek. Lanean gogotsu ari badira ere, Iñaki Barona eta Joxemi Reguero IKA zuzendaritza taldeko kideek ohartarazi dute sektorearen baldintzak hobetu beharra daudela irakasleen hurrengo belaunaldia ziurtatzeko.

31. urteurrena? Ez da ohiko zifra...

Joxemi Reguero: Aurten 30 urte bete ditugu, eta jende guztiak zenbaki biribilak ospatu ohi ditu; baina, gure kasuan, konturatu ginen euskarak joko gehiago ematen zuela hogeiei eta hamaikagarrena ospatuta, eta horri ekin diogu. Gainerako euskalgintzarekin elkarlana estutzeko baliatu nahi dugu urteurrena.

Iñaki Barona: Diru askorik ez genuela kontuan izanda, xumea baina polita izan zitekeen zerbait egitea pentsatu genuen. Hori gogoan, gure ohiko jardueretan egiten ditugun ekintza kulturalak hartzea eta horiek euskalgintzarekin batera



Barona eta Reguero. ALEA

zabaltzea erabaki dugu. Eta kontrako jarioa ere hartzea, hau da, euskalgintzatik bertatik proposatzen dituzten ekintzak gurean txertatzea.

Gasteizi dagokionez, zer ekintza zehatz egingo dituzue?

J.R.: Horieta batzuk mintzalagunekin izango dira. Haiek antolatatu dituzten hainbat tailer zabalduko ditugu. Momentuz sukaldaritza eta dantza tailerrak egingo ditugu. Dantza tailerra jaialdi batekin amaituko da, ikasitakoa martxan jartzeko. Bestalde, maiatza aldean edo, pintxo pote handi bat antolatzeko asmoa

dugu. Oihanederreko lagunekin arituko gara, eta ALEAren ere lehiaketa bat prestatu dugu: normalean gure euskaltegietan egiten dugu, baina oraingoan ALEAren irakurleen artean ere zabalduko dugu.

Zein da orain arteko ibilbideaz egiten duzuen balantzea?

J.R.: IKAk Araban egin duen ibilbideaz oso harro gaude. Oro har, euskalgintza osoak ibilbide oparoa egin du, eta emaitzak ikustekoak dira. Azken 30 urteotan Araban 5.000 lagun ibili dira urtero euskalduntzen, eta, horietatik, erdia baino gehiago gurekin ibili da. Gasteizen eta Araban euskarak izan duen gorakada oso handia izan da. Horretan bi faktore daude: eskola eta helduen euskalduntzea. %40 inguru helduen euskalduntzeri dagokio, eta horren ardura handi bat gurea da.

Ibilbide horretan, nolakoa izan da instituzioekiko harremana?

J.R.: Azken urteotan hobetu egin da. Udalarekin harremana gero eta hobea da. Diputazioaren kasuan, azken urteetan planteatu dituzten ikasleentzako diru-laguntzak



Sektorean dituzten baldintzak hobetu behar direla babestu dute, etorkizunean irakasle berriak egotea ziurtatzeko. ALEA

oso positiboak dira, zeren benetan jotzen baitute doakotasunaren bidera: dirua aurrerratu egiten dute. Normalean diru-laguntzak beti *a posteriori* izan dira. Baina, zenbait kasutan, begi-bistakoa da jendeak hasierako diru hori behar duela euskara ikasten hasteko. HABErekin gauzak hobetu dira, baina haiekin geratzen zaigun tartea oraindik ikaragarria da.

Zer behar du IKAk aurrera jarraitzeko?

I.B.: Euskara ikasle izateko beharrezkoa da goi mailako titulua, eta ezaugarri hori duen jendeak mila aukera hobeagoak ditu euskaltegiko irakaslea izatea baino. Gu oso gustura ibili arren, ordu gehiago sartu behar ditugu, orduetegi aldaketak ditugu eta gure soldata irakaskuntza pribatuan

dagoenaren %50 da. Gu adinean aurrera goaz, eta hemendik hamar urtera askok lana utzi beharko dugu. Gauzak horrela, ordezkioak erakartzeko baliabideak jaso eta lan baldintzak hobetu behar ditugu.

Ikasleen profila asko aldatu al da?

I.B.: Azken urte hauetan askoz nabarmenagoa izan da ikasleen helburu instrumentala: titulu bat lortzea, alegia. Eta hori normala da. Beste garai batean titulua ez zen gehienok buruan geneukana. Beste motibazio bat zegoen. Nik neuk euskaltegian ikasi nuen euskara. Baina horrekin ikasi behar da jokatzen.

Tituluaren bila etorri eta euskararekin maitemintzen direnak ere egongo dira, ezta?

I.B.: Askok bai, eta gainera beraiekin oso emaitza onak

izaten ditugu. Badira nahiko modu itxian etortzen direnak, buruan titulua besterik ez daukatena, baina denborarekin bilakaera itzela ikusten dugu haiengan. Beste mundu bat aurkitzen dute euskara ikastea, batzuetan nahigabe.

Zeintzuk dira etorkizunari begirako erronkak?

J.R.: Hurrengo erronka da etorri berriak gurera erakartzea. Mundu zabaletik etorri zaigun jende hori guztia, hain zuzen. Oso arraroa egiten zaie bertoko hizkuntza ikasteagatik ordaindu behar izatea. Pentsa, gainera, gaztelaniazko eskolak zentimo bat ere ordaindu behar izan gabe jasotzen dituztela. Horregatik, benetako doakotasuna lortzea gako da jende hau euskarara erakartzeko. ■■■



Kantatzeko aukera berri bat

Gaztetxoen artean euskarazko kantuak sustatzea helburu duen Kantari izeneko karaoke ikuskizunean izena emateko aukera izango da urriaren 14ra arte; azaroaren 16 eta 17an dira grabazioak.

ERREDAKZIOA

Bueltan da osterara ere Kantari. Aurreikuspenak gaituta, izazko edizioan 400 neska-mutikok baino gehiagok eman zuten izena Kantari ikuskizunean. Hori dela eta, zozketa bidez erabaki behar izan zen behin betiko parte-hartzaileen zerrenda. Aurtengoan, indarberrituta dator karaokea, eta 7 eta 11 urte bitarteko gasteiztarrek izango dute berriz ere horretan parte hartzeko aukera.

Pasa den urtean bezala, zozketa bidez erabaki beharko dira parte-hartzaileak nortzuk diren, beraz garrantzitsua da izena behar bezala ematea. Dagoeneko zabalik dago horretarako epea; urriaren 14ra arte egongo da apuntatzeko aukera. Parte hartu nahi dutenek ALEAren webgunean aurkituko duten galdetegia bete beharko dute.

Urriaren 16an, zozketa

Urriaren 16an jakinaraziko dira parte-hartzaileen izenak; eta hilaren 21ean zein ordutan abestu behar duten, zein abesti egokitu zaien, eta abestia prestatzeko materialak eta bestelako argibideak bidaliko zaizkie. Talde bakoitzari egokitutako kantuak entseatu beharko dituzte neska-mutikoek: garrantzitsua da entsegu nagusiaren egunerako



Aurten, 300 neska-mutikotik gora elkartuko dira. ESTI LANA O



Dendaraban ospatuko dute aurtengo euskal karaoke jaiak. ESTI LANA O



Zazpi eta hamaika urte bitarteko umeei dago zuzenduta Kantari. E.L.

letra ondo ikasita izatea (grabazioan beraiek abestuko dutelako), eta koreografia ere barneratuta izan beharko dute. Entsegu egunean ikasi dutena erreparatzeko eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko momentua izango da; azaroaren 9 eta 10ean egingo dute hori, Vital Kutxa

Fundazioak Dendaraban duen aretoan.

Grabazio saioak, berriz, azaroaren 16 eta 17an izango dira, toki berean. Parte-hartzaile bakoitzari, aldezturik, lau gonbidapen banatuko zaizkio grabazio egunean euren gurasoak, familiakoak edota lagunak doan

sar daitezten ikuskizuna ikustera.

Egun horietan grabatzen diren bideoak eta parte-hartzaileei ateratzen zaizkien argazki guztiak alea.eus/kantari webgunean eskuragarri egongo dira. Gainera, posta elektronikoz zein telefonoz ere bidaliko dira irudiak. Dena dela, zalantzak argitu edota informazio osagarria eskuratzeko, bi bide jarri dira eskura: 640 57 49 96 telefono bidezkoa, batetik; eta kantari@geuelkarte.eus posta elektronikoa, bestetik.

Kantari Gasteiz Euskararen Astearen barruan kokatzen den ekimena da; gaztetxoaren artean euskarazko kantuak sustatzeko karaoke ikuskizuna da eta ez du inolako lehiaketa kutsurik. Aurten, 300 neska-mutikotik gora elkartuko dira. ■■■



ERAKUSKETAK

Juan Carlos Meana
NOS[YO]OTROS
> 2019.09.15

Javier Hernández Landazabal
Galduez eta berreskuratuz
> 2019.09.15

Oroí. Queda mucho pasado por delante
Artium Bilduma
>2020.01.05

JARDUERAK

HITZALDIAK
Javier Hernández Landazabal & Daniel Castillejo
09.11 19:00
Juan Carlos Meana & Enrique Martínez Goikoetxea
09.12 19:00

ARTISTAK GUREAN
Elena Aitzkoa
25.09 19:00

KONTZERTUAK-PROGRAMA IGANDEAK

09.08 - Montauk
09.15 - Birkkit
09.22 - Sara Zozaya
09.29 - Duluth
20:00 Plaza aretoan. Doako jarduera

DanzAlava 2019
Jeremy Wade | www.danzalava.com
09.01 20:00

CinemArtium
Qui vive . Marianne Tardieu
09.24 19:00

Argibide gehiago:

www.artium.org

Indianoen urratsen atzetik

Oso ezezaguna da Amerikara joan eta aberastuta itzultitako arabarrek herrialdean utzitako legatua; eliza, jauregi eta eraikin publiko asko indianoen donazioei esker eraiki edo apaindu zituzten.

ARGAZKIAK: PHOT.OK

TESTUA: ESTITXU UGARTE L.Z. DE ARKAUTE

Euskal Herria beti izan da emigranteen lurraldea, bereziki XVIII. mendetik eta XX. mendera bitartean. Araban Aiaraldea, Bizkaian Enkarterriak eta Nafarroan Baztan bailarak dira "Amerikako abenturan" gehien inbertitu zuten lurraldeak. XVIII. mendetik aurrera, Amerikara joan ziren arabarren helburu nagusia familia laguntzea izan zen. Batzuek baino ez zuten lortu, eta horien artean oso gutxi aberastu ziren.

Halere, dirutza irabazi zutenen artean, badira Gaztelako Erresumaren noble tituluak jaso zituztenak. Horien artean ezagunenak dira Francisco Leandro de Viana, Tepako kondea, Lagranen jaiotakoa; edo Artziniegako Jose de Retes y Lartxaga, San Jorgeko markesa.

Beste hainbat arabar ere merkataritzan eta meatzaritzan jardun ziren, eta Ameriketako administrazioan botere handia eta kargu garrantzitsuak lortu zituzten. Gasteizko Egia familia, Aiara Atxa sendia, Ladron de Gebara, Bitorika, eta beste abizen ezagunak daude boteredunen talde horretan.

Euskal Herrira itzuli zirenean, Amerikan dirutza egindako indianoen euren estatus berria islatzen zuten etxeak eraiki zituzten; eta Arabako eliza eta



Campo Menoyo familiaren etxea.

AMURRIOKO UDALAK INDIANOEN ONDAREA NABARMENTZEKO SAIAKERA EGIN DU

ermita gehienek ere jaso zituzten amerikaroen laguntza ekonomikoa.

Ikerketa

Juan Jose Benavides Martinezek *Los alaveses en Nueva España* ikerketan jasotako datuen arabera, XVIII. mendean, 180 donazio egin zizkieten indiano arabarrek 53 herriri. Donazio horien %45 Aiaraldean jaso zuten, eta gainerakoak Lautada inguruko herrietan.

Ikerketa horretan ere jaso du Martinezek Araban, Aiaraldean, XVIII. mendean, egin zela donazio handiena: 1771. urtean

egin zuen Juan de Ibarrola y Castañiza Mexikoko merkataria, Okondoko Unzako Andre Mariaren parrokia eraikitzeko. Gainera, 4.600 peso bidali zituen, herrian maisu bat kontratatzeko.

Indianoen ibilbidea

Herrialdeko eliza, parrokia, jauregi eta eraikin publiko asko indianoen donazioei esker eraiki edo apaindu baldin bazituzten ere, arabar indianoen historia oharkabean igaro da. Amurrioko Udala da ondare hori nabarmentzeko eta herriko indianoen historia jasotzeko saiakera egin duen bakarrenetako bat. Hala, ibilbide bat antolatu du indianoen etxeak ezagutarazteko.

Ibilbide horretan daude Mexikora joandako Uribe anaiek eraiki zituzten Margarita Etxea eta Fe Etxea. Gainera, Argentinara emigratu zuten eta han *La Vizcaína* burdinola gobernatu zuten Saratxaga anaiek eraiki zuten Tobalina Etxea dago. Añesko Jose Campo Menoyok, Kubatik itzultitako beste indiano batek, 1926an egin zuen eraikina ere bildu dute ibilbidera; eta, era berean, Mexikon jaiotako Esteban Isusik, 1933. urtean, Elexondo kalean eraiki zuen jauregia jasota dago. Gainera, Isusik parrokiako bataioetegiko kapera egiteko beharrezko dirua ere eman zuen. ■■■



Esteban Isusik 1933. urtean eraiki zuen etxea.



Margarita Etxea, Uribe familiarena.



Justo Saratxagaren etxe zaharra. Egun, Virgen Niña ikastetxea, Amurrión.



Indianoen ibilbidea

Kuadrilla: Aiaraldea.

Udalerría: Amurrión.

Kokapena: Erdigunean edo inguruan daude indianoen etxe guztiak.

Bitxikeriak: Argentina, Kuba eta Mexiko izan ziren Aiaraldeko emigranteen helmuga nagusiak.

Araban da, baina...

IKA EUSKALTEGIA



... zer herritan dago errota hau?

Aurten hogeita hamaikagarren urteurrena ospatuko dugu IKAn; hori dela eta, Alearen irakurle guztiokin partekatu eta guztioi aukera eman nahi dizuegu urtero euskaltegian antolatzen dugun 'Araban da, bai, baina...' lehiaketan parte hartzeko. Lehiaketa Araban dagoen dorre, haitz, ur-jauzi, eskultura... baten argazkiari buruzko galderari erantzutean datza.

Datozen bederatzi asteotan argazki zein galdera bana izango duzue astero ikusgai Alea aldizkarian, asmatzeko zer herritan dagoen argazkiko jauretxea, nola duen izena irudiko mendiak edota zer jai egiten duten erretratuko baselizan. Animatu eta parte hartu, ea erantzun zuzena ematea lortzen duzuen!

Hiru astean behin opari bat zozketatuko dugu asmatzen duzenon artean, eta, horretaz gain, irabazleok Alea taldea osatuko duzue abenduaren 19an egingo dugun Gasteizko euskaltegien arteko Araban da, bai, baina... finalean lehiatzeko. Erakuts ezazue zer ongi ezagutzen duzuen Araba! ■■■



Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, eman erantzuna gure webgunean:

alea.eus/bereziak/ika31

ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozketak

Irabazleak:

Hala Bedin afaria: Aitzol Egia Amezua.

Gorbeia zinemarako sarrerak: Mikel Mirena Arribas Amestoy.



GoPro motako kamera [ZOZKETA IREKIA]

GoPro motako kamera urperagarria. Kirol eta aisialdi jardueretarako diseinatuta (mendia, bizikleta, korrika...) eta wifi konexioduna. Urriaren 1etik 16ra bitartean harpidetzen edo harpidetza berri bat lortzen duzuenen artean zozkatuko dugu. Irabazlearen izena urriaren 18ko aldizkarian argitaratuko dugu.

OHARRA: Oraindik bazkide-zenbakirik ez baduzu, 000 idatzi.

POSTONTZIA

BIDALI ZURE MEZUA: www.alea.eus/zorionagurrak



Ioar Uriarte Bezares

Gasteiz

Bi hilabete.

Ongi etorri Ioar, abentura hasi besterik ez da egin.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak/



AGENDA

Urriaren 4tik 10era

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Montauk

Gauekoak egitasmoa.
Larunbata 5, 20:00etan, Lorategi ezkutuan.

LAUDIO Dizerdit

Carnage taldearekin batera.
Astearte 8, 20:00etan, Orbeko etxean.

BERTSOLARITZA

LEGUTIO 'Bertxoratu'

Bertso eskolen aurkezpena.
Ostirala 4, 17:00etan, kultur etxean.

ARAMAIO Lagun artekoa

Agin Laburu eta Aitor Sarriegirekin.
Ostirala 4, 21:30ean, Untzillan.

URIZAHARRA Bertso poteoa

Aroa Arrizubieta eta Iñaki Viñaspre bertsolariekin.
Larunbata 5, 20:30ean, plazatik hasita.

HAURRAK

LAUDIO 'Sorgin zapatuak'

Askaria eta udazkeneko loreak egiteko eskulan saioa.
Larunbata 5, 17:30ean, Lamuza parkeko frontoi etxean.

BUJANDA 'Kalean otso, etxean uso'

Antzerkia, Patata Tropikala taldearen eskutik.
Igandea 6, 13:00etan, plazan.



GOIENA

GASTEIZ 'Pastoreak' dokumentala eta solasaldia

Dokumentalaren ostean, solasaldia Eukeni Arriortua eta Puy Arrietarekin.
Asteazkena 9, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

HITZALDIA

GASTEIZ 'Kode-poesia'

Kode-poesia laborategian oinarriak ezagutu eta esperimendazio gunea sortuko dute. Bertol Arrieta idazle eta informatikaria izango da irakaslea.
Astearte 8, 18:30ean, Oihaneder Euskararen Etxean.

GASTEIZ 'Gazteak, teknologia berriak eta irakurzaletasuna'

Galtzagorri elkartearen eskutik. Booktuber komunitatearen inguruko jardunaldia.
Larunbata 5, 11:15ean, Goiuri jauregian.

IKUS-ENTZUN

MAEZTU 'Black is Beltza'

Fermin Muguruzak zuzendutako animazio pelikula.
Ostirala 4, 19:30ean, udaletxean.

LAUDIO 'Oxigenoa euskarari'

Dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia.
Ostirala 4, 19:30ean, Laudioalde Lanbide Heziketa ikastetxean.

LAUDIO 'Napardeath trilogia'

Zinema proiektzioaren ostean garagardo artisauen dastatzea izango da.
Ostirala 4, 20:00etan, Ekintzen Faktorian.

BESTELAKOAK

GASTEIZ 'Goseak janak' errezitaldia

Gasteizko Irakurle Klubaren 2019-2020 ikasturteko egitaraua aurkezteko ekitaldia izango da. Idurre Eskisabel, Amagoia Gurrutxaga eta Irati Agirreazkuenagaren errezitaldia.
Osteguna 10, 19:30ean, Ignacio Aldekoa kultur etxean.



GRANMA

GASTEIZ 'Granma. Metales de Cuba'

Kubako historian bidaia, musikarien bidez.
Asteazkena 9, 20:30ean, Principal antzokian.

Beste batzuk

MUSIKA

GASTEIZ Diamond Dogs

The Northagirres taldearekin batera.
Ostirala 4, 21:30ean, Hell Dorado aretoan.

ANTZERKIA

AMURRIO 'Mandíbula afilada'

Jon Plazaola eta Aitziber Garmendia aktoreekin. Mario Hernandezek zuzenduta.
Larunbata 5, 20:00etan, Amurrio antzokian.

GASTEIZ 'El jardín de las delicias'

Marie Chouinard konpainiaren eskutik.
Larunbata 5, 20:30ean, Principal antzokian.

GASTEIZ 'El mago'

Juan Mayorgak zuzendutako obra. Maria Galiana, Jose Luis Garcia Perez, Ivana Heredia, Tomas Pozzi eta Clara Sanchis aktoreekin.
Osteguna 10, 20:30ean, Principal antzokian.

GASTEIZ 'La viga'

Carmen San Estebanek eta Eloi Beatok zuzendutako obra.
Osteguna 10, 20:00etan, Montehermoson.

BESTELAKOAK

GASTEIZ 'Cortometrajes'

Diana Toucedoren lana. Zinema Gaur zikloaren barruan.
Astelehena 7, 19:30ean, Montehermoso kulturunean.

GASTEIZ '4pArTE'

Ane Gebararen instalazioa. Lau istorio kontatzen dituzten lau ataletan banatuta dago lana.
Urriaren 20ra arte, Artgia erakusketa aretoan.

Euskararen Agendako hitzordu guztiak ikusteko:

alea.eus/agenda

624.

Feria Aguraingo Azokoa 2019

Urriak 8 asteartea
Martes 8 octubre

11:00etan

- "Euskal Hemiko Mendiko Zaldia" arrazako Euskadiko zaldi-aziendaren XII. Lehiaketa morfologikoa.
- Arabako XXXIII. Artzain-Gazta lehiaketa
- Behi eta ardi-aziendaren erakustaldia.
- Nekazal makineriaren erakustaldia.
- Euskal Hemiko artisautza, gastronomia eta produktuen erakustaldia eta salmenta.

11 horas

- XII Concurso morfológico de ganado equino de Euskadi de la raza "Caballo del monte del País Vasco".
- XXXIII Edición del Concurso Provincial de Quesos de Pastor.
- Exposición de ganado vacuno y ovino.
- Exposición de maquinaria agrícola.
- Exposición y venta de artesanía, gastronomía y productos típicos del País Vasco.

Antolatzailea / Organiza

Laguntzailea / Colabora



AGURAIN
LDA

Arabako Foru Aldiundia
Diputación Foral de Álava

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

GRUPOWEC
thinking forward